

GERRA AFGANISTANEN

LABURRAN

Historia ez da errepikatu

PEARL HARBORREKO ERASOAREN 60. URTEURRENA. Japoniak 40ko hamarkadaren hasieran egindako eraso irailaren 11ko atentatuekin lotzen dute aditu askok

Enrique Zaldúa | NEW YORK

Dorre bikiak erori zirenean bi oroitzapen berreskuratu zituzten estatubatuarrek historiaren kutxatik: Hiroshima eta Pearl Harbor. New York eta Washingtonen aurkako erasoek sortarazi zuten hondamen fisiko zein psikologikoak bat baino gehiago eraman zuen bizitako traumaren erreferentziatzat bonba atomiko batek suntsitutako hiriaren ikuspegi postnuklearra hartzerantz. Alabaina, irailaren 11koa Ameriketako Estatu Batuek Bigarren Mundu Gerran parte hartzerantz bultzatu zituen gertaerarekin parekatu daitekeen ala ez izan zen askori burura etorri zitzaion galdera nagusia. Erasoak gertatu eta berehala, Wisconsin estatuko Madison irratiko Jennifer Miller kazetariak 82 urteko bere aitari deitu zion, ondokoa galdetzeko: «Aita, hau al da nire Pearl Harbor?». Erantzunak mutu utzi zuen, kazetariak *Wisconsin State Journal*eko artikulu batean azaldu zuenez: «Ez, laztana, hau okerragoa da».

Jende asko da iritzi berekoa, Glen Jeansonne Wisconsin-Milwaukee Unibertsitateko Historia irakaslea kasu. Hona hemen arrazoiak: egungo gatazkaren nondik norakoak 1941ekoak baino askoz lausoagoak dira, etsaia nor den ez dago hain garbi eta zerumuga zehaztea ezinezkoa da. Frank Zeidlerrek 29 urte zituen Japoniaren erasoaren garaian, eta haren esanetan, Estatu Batuak gerran sartu zirenean «ez genuen zalantzarik, bagenekien gure herrialdeak garaituko zuela». Orain, ordea, «gizarteari asko ari zaio konstatzen egungo mehatxua zenbaterainokoa den ulertzea». Gaur egun ziurgabetasuna askoz handiagoa da. Pearl Harbor Hawain zegoen, eta Estatu Batuen menpeko lurraldea izan arren, jendeak urrutiko gauza bezala ikusten zuen. New Yorkeko eta Pentagonoko erasoaren ostean, herrialdeak sentitzen zuen segurtasun sententzia deuseztatu egin zen, agian betiko.

Bi gertaeren arteko beste ezberdintasun bat ekonomiarekin dago lotuta. 1941ean AEBak Depresio Handitik irteten ari ziren, eta gerran sartzeak herrialdearen garapen ekonomikoari kontatzen ezin ahala etekin ekarri zizkion. Milaka lanpostu sortu ziren eta 50eko hamarkadako



DAVE MARTIN / AP

Afganistan hegoaldeko kanpamenduko *marine*-ak, hortzak garbitzen, herenegun.

boom-aren oinarria ezarri zen. Bestalde, orduko sare ekonomiko oraingo baino ahulagoa zen —hilurren egon den gaixoa bezalakoa—, eta Gobernuak ezin zien herritarrei «normaltasunera itzultzeko» dirua gasta zezaten eskatu, dirurik ez zuten eta. Orain, erasoek azaleratzen hasia zen krisia areagotu dute; eta, hala ere, «gastatu ezazu dirua, turista gisa bizi eta joan zaitzez New Yorkera» leloa zabaltzen da. Abertzaletasunerako gonbita da, eta ez du zerikusi handirik sakrifizio pertsonalarekin. Harrigarria bada ere, inork ez du petrolio gutxiago kontsumitzeko eskatzen, AEBen etsai potentzialak —edo errealeak— diren herrialdeekiko dependetzia txikiagoa izatea lortzeko. Bidenabar, ez dago ilararik Ar-

KRISIA

Herrialdeak ordura arte zuen segurtasun sententzia deuseztatu egin da erasoaren ostean, betiko agian

madako bulegoetan, gerrarako izena emateko gertu, duela 60 urte bezalaxe. Xedea, ahalegina, erosten jarraitzea da, *American Way* funtzionatzen jarrai dezan dirua xahutzea. Eta bitartean, langabetuen zerrenda zabaltzen ari da —1.370.000 lanpostu galdu ziren 2001eko lehen bederatzi hilabeteetan; horietako 250.000 irailean, *Milwaukee Journal Sentinel* egunkariaren arabera—.

Oraingo mundu konplexua

Azken finean, bi garaien arteko alde nabarmenena antsietatean datza. Gerran egon arren, duela 60 urteko mundua sinpleagoa zen, ez zen hain konplexua. Argi zegoen zein ziren onak eta zein gaiztoak, hilabeteak pasatzen ziren zenbait albistiren berri izan orduko eta karpeta bat Gabonetako opari zoragarria zen. «Normaltasun kapitalistara» bueltatzeko presio horrek, terrorismoaren mehatxuak ekarri duen segurtasun ezarekin batera, tentsioz betetako giroa sortu du; eta baliatzen aldaketa paradigmaticoa sortaraztea Ameriketako Estatu Batuetako datozen hamar urteetako politikan eta gizarte-an.

SOMALIA

AEBak terrorismoaren aurkako kanpaina militar bat egiteko babesa lortu nahian dabiltza

Ameriketako Estatu Batuek Afrika ekialdeko herrialdeen babesa eskatu zuen atzo Somaliako «terrorismoaren aurkako» kanpaina militar bat egiteko. Posible da Somalia izatea erasoetako hurrengo jomuga. Izan ere, Walter Kansteiner Afrikarako Estatu idazkariordeak Estatu Batuek Bin Laden eta Somaliako talde estremisten arteko harremana «serioski» aztertzen ari direla esan zuen atzo. Hassan Abshir Fara Somaliako lehen ministroak baimena emango die, eta Etiopia ere laguntzeko gertu dago.

INDIA

Al Kaedako ustezko kide batek eraso gehiago egiteko plana aitortu du

Indiako agintarien arabera, Al Kaedarekin lotura zuela-koan atxilotu zuten gizon batek Erresuma Batuan, Australian eta Indian eraso suizidak egiteko planen berri eman zuen. Gizon horrek pilotu ikasketak egin ditu Australian eta Erresuma Batuan, eta irailaren 11n Londresen ere hegazkinak bahitu eta Legebiltzarraren zein Tower Bridgeren aurka joateko asmoa zutela omen dio, baina azken unean atzera egin zutela.

ESTATU BATUAK

Antrax eskutitz faltsuak bidaltzen zituen gizon bat atxilotu dute

Cincinnati Clayton Lee Wagner gizona atxilotu zuten atzo, ustez antraxez beteta zeuden eskutitz faltsuak bidaltzeagatik. Ia 300 eskutitz faltsu bidali zituen, abortoa onartzen duten ospitaleetara. Otsailean kartzelatik ihes egitea lortu zuen Wagnerrek; besteak beste, bankuetan lapurtzea leporatzen zioten.

Errepublikanoek ez dute hainbeste diru gastatu nahi terrorismoaren aurkako programetan

Demokratek terrorismoaren aurkako programetan 35 bilioi dolar gastatzea proposatu dute, eta errepublikanoek egitasmoa blokeatzeko asmoa erakutsi dute. Bush presidenteak 20 bilioi oraingoz aski direla esan zuen atzo. Defentsan 318 bilioi dolar gastatu dute aurretik.